

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak honako hauek izango dira: Hasteko guk lokal propio bat eduki beharko dugu, bertara Txinatik iritsitako produktuak eskaintzeko eta gauza guztiak antolatzeko. Lokal hau alokatua denez, hilero 900€ inguru ordaindu behar ditugu. Apirilean beste lokal bat alokatuko dugunez Bilbon, gure gastuek gora egingo dute, 1.800€ ingurura alegia. Amaitzeko, Irailean Gasteizen beste lokal bat hartuko dugunez, orduan gure gastuak 2.700€ ingurukoak izango dira.

Lokal bakoitzeko hamar bizikleta izango ditugu, bizikleta bakoitzak 200,25€ balio du. Urtarrilean irekiko dugun lehenengo lokalerako hamar bizikleta behar ditugu, beraz 2.002,50€ ordaindu beharko ditugu. Apirilean bigarren lokalerako beste 2.002,50€ gastatu beharko genituzke eta irailean berdin.

Lokal bakoitzeko langile bat daukagu, hasieran lokal bakarra genuenez langile bakarrari ematen genion 1.082€-ko soldata. Bigarren lokala irekitzerakoan beste langile bat behar genuenez, zoldapekoa apur bat jaitsi behar izan genuen, 1.072ra hain zuzen, gastu handiak egin baikenituen hilabete hartan. Hirugarren zerbitzua irekitzerakoan beste langile bat behar genuen noski, eta beraien soldata 1.020€-ra jaitsi behar izan genuen arrazoi berberetatik. Totalean 3.060€ gastatzen ditugu langileen soldatekin.

Gastu aldakorrei dagokionez, hilabetean 54,01€ gastatzen ditugu ura ordaintzeko. Argiari dagokionez, 116.27€ inguru gastatzen ditugu. Gutxi gora behera urtean gehienez hiru aldiz puskatzen dira makinak eta 20€ inguru kobratzen digute makina bat konpontzegatik. Azkenik publizitatea, honetan kanpaina txiki bat egiten dugu maiatzean eta horregatik 112,5€ ordaindu behar izaten ditugu. Kanpaina handiago bat egiten dugu urrian, azaroan eta abendu bitartean eta bertan 1499,30€ gastatzen ditugu.